



JAVIER CLEMENTE (Espanyoleko entrenatzailea)

EMAITZA

«Etxetik kanpo berdinketa batek morala ematen du, baina emaitza politikoa da, eta niri piperrik ere ez dit balio»

FITXAKETAK

«Klub honetan jokalaria eskatu nituen azken aldian ezer ez nuen jaso, baina fitxaketa onen edo txarren zerrenda dudak jakin behar dut»

ESPAINIAKO LIGAK



PARTIDAK ETA SAILKAPENAK

LEHEN MAILA
16. JARDUNALDIA

Osasuna	-	Rayo
Valladolid	-	Betis
Alaves	-	Espanyol
Racing	-	Athletic
Vila-real	-	At. Madril
Deportivo	-	Celta
Real Madril	-	Valentzia
Reala	-	Malaga
Bartzelona	-	Recreativo
Sevilla	-	Mallorca

SAILKAPENA *

▲ 1. Reala	35	+13
▲ 2. Real Madril	30	+17
▲ 3. Valentzia	28	+16
▲ 4. Celta	27	+7
■ 5. Betis	26	+10
■ 6. Deportivo	26	+3
7. Mallorca	23	-5
8. At. Madril	21	+3
9. Racing	20	+1
10. Bartzelona	19	+3
11. Malaga	18	-2
12. Osasuna	18	-4
13. Athletic	18	-7
14. Sevilla	17	-2
15. Valladolid	17	-5
16. Alaves	16	-8
17. Vila-real	15	-4
▼ 18. Rayo	15	-7
▼ 19. Espanyol	13	-11
▼ 20. Recreativo	9	-18

▲ Txapeldunen Ligara ■ UEFARA ▼ Bigarren A Mailara
*Atzoko emaitzak kontutan hartu gabe

BIGAREN A MAILA
17. JARDUNALDIA

Levante	-	Murtzia
Kordoba	-	Tenerife
Salamanca	-	Ferrol
Ejido	-	Compostela
Albacete	-	Oviedo
Leganes	-	Getafe
Sporting	-	Zaragoza
Xerez	-	Almeria
Elx	-	Eibar
Numancia	-	Terrasa
Las Palmas	-	Badajoz

SAILKAPENA *

▲ 1. Zaragoza	31	+6
▲ 2. Levante	28	+10
▲ 3. Albacete	27	+9
4. Murtzia	26	+9
5. Elx	25	+10
6. Xerez	25	+2
7. Salamanca	23	+2
8. Terrasa	23	+1
9. Ejido	22	-1
10. Sporting	22	-1
11. Ferrol	21	-3
12. Las Palmas	20	+3
13. Tenerife	20	+2
14. Getafe	20	+1
15. Almeria	19	-6
16. Eibar	18	-4
17. Badajoz	18	-11
18. Compostela	16	-2
▼ 19. Numancia	16	-6
▼ 20. Leganes	15	-4
▼ 21. Kordoba	12	-8
▼ 22. Oviedo	11	-9

▲ Lehen Mailara ▼ Bigarren B Mailara
*Atzoko emaitzak kontutan hartu gabe

Alaves-Espanyol

Espaniako Ligako 16. jardunaldia

O.I. 17:00

Azken bost denboraldietako emaitzak		
Zelaia	2001-02	2-1
Mendizorrotza (19.200 ikusle)	2000-01	1-0
	1999-00	0-0
Epailea	1998-99	1-1
Esquinas Torres	1997-98	-

Partidako datua

Giro bikaina biziko da harmailetan. Aldundiak 2.000 sarrera banatu baititu, eta jostailu bat eramaten duen ume bakotitzak partida doan ikusteko aukera izango baitu.

Partidako esaldia

"Etxetik kanpo irabazten ez badugu etxeko partida guztiak finalak izango dira" (Luis Helguera, Alaveseko jokalaria).

Partidako protagonista




Helguera. Alavesen erasoko jokoa sortu, eta Mallorcan eta Bartzelonan erakutsitakoa hobetzen saiatuko da.

Alaves

Entrenatzailea: J.M. ESNAL 'MANE'

Jok.	Ira.	Ber.	Gal.
Sailkapena 16.	Etxean 7	3	2
Puntuak 16	Kanpoan 8	1	2

Hamaikakoa



Aulkian: Juan Pablo, Eggen, Edu Alonso, Desio, Mara, Navarro eta Alonso.

Espanyol

Entrenatzailea: JAVIER CLEMENTE

Jok.	Ira.	Ber.	Gal.
Sailkapena 19.	Etxean 8	3	1
Puntuak 13	Kanpoan 7	1	0

Hamaikakoa



Aulkian: Argenso, Amaya, Alex Fernandez, Velazaman, Oscar, Posse eta Arteaga.

ALAVES. Manek ezohiko egitura antolatu du aurreko lerroan

Zulorako txartela zotz

Espanyol, Javier Clementek arnasa emanik, Valladoliden aurkako garaipena topiko hutsa ez zela izan erakustera dator Gasteizera

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Liga erdia baino gehiago falta bada ere oraindik, urduritasuna sumatzen hasi da sailkapenaren beheko postuetan, bertan dauden taldeek gora egin nahi dutelako ahalik eta azkarren. Egoera horretan daude, hain zuzen ere, Mendizorrotzan gaur arratsaldean aurrez aurre izango diren bi taldeak: Alaves eta Espanyol. Gaurko partida orain dela hiru jardunaldi jokatu izan balitz, krisi nabariari heldu izango zen Espanyol Gasteizera, baina gaur Clementeren bultzadapean helduko dira.

Athleticen eta Realaren entrenatzaile ohiak hartu berri duen taldea sailkapenaren azken hiru postuetatik ateratzeko saioan hasi da, eta Clementek Espanyoleko aulkian egiten duen hirugarren aroaren debutean, 1-0 irabazi zion Valladolidi. Iritsi eta berehala, lur jota zegoen taldeari morala altxatzen hasia da entrenatzaile barakaldarra, eta zenbait jokalariri beren onenak emanarazten. Gaur, hala ere, ezin izango du Roger zelairatu, ez baita osatu.

Alavesek gogoz hartu du gaurko partida, baina etxetik kanpo puntuak lortzeko zailtasunak sortzen duen presioarekin. Astea honetan hainbat jokalarik azaldu duten bezala, etxetik kanpo punturik lortzen ez duten bitartean Mendizorrotzako partida guztiak finalizat hartu beharko dituzte. Zorionez, Alavesek Gasteizen maila ona erakusten du, eta, garrantzitsuagoa dena, garaipen bolar da polita lortu du dagoeneko, eta bide horri eutsi nahi diote Maneren jokalariek.

Mugikortasuna bilatzeko, Alonso eta Navarro aulkian

Gaurko partidarako, ordea, Mendizorrotzan zelairatu ohi den taldean aldaketa esanguratsuak izango dira. Hala, litekeena da aurrelari peto-petorik gabeko hamaikako bat agertzea, Manek aste honetan erakutsita-



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS
Ruben Navarro ez da gaur hasieratik ariko, ezta Ivan Alonso ere.

ko ideari eusten badio. Ivan Alonsok eta Ruben Navarrok aulkian hasiko dute partida, Magno eta Ilie izango baitira taldearen erasoan. Hortaz, Balmasedako entrenatzaileak mugikortasuna bilatuko du erasoan Espanyolen defentsa apurtzeko.

Atzeko lerroan ere egingo ditu aldaketak Manek: azken jardunaldietako ohitura apurtu eta Llorens eta Tellez kokatuko

ditu lauko lerroaren ezkerrean. Euskarrian, ohiko ideari eutsiko dio Alaveseko entrenatzaileak, eta aurkariaren jokoa deuseztatzen trebea den jokalaria bat, eta baloia gehiago mugitzeko erraztasuna duen beste euskarri bat zelairatuko ditu. Oraingoan, ordea, Turielen ondoan ez da Pablo egongo; Helguerak hartuko du gasteiztarren tokia, eta taldearen erasoari indar egiten saiatuko da.